

gaz-teak



Ejemplar gratuito

321 Zb
www.getxo.eus

>> 2018ko otsaila



Nabarmen^{tzekoak}

> “Hola”, “Una noche en el cementerio” eta “Osasun Fundamentala” proiektuek irabazi dute Wanted Ideia Lehiaketaren 2017ko edizioa

> Tailer eskaintza berria gazteentzat

> Izen-ematea Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan

Izen-ematea Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan

Datorren otsailaren 19ra arte egongo da zabalik 2018ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako izena emateko epea, Eusko Jaurlaritzak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak antolatuta, Euskadiko GKEen eta hegoaldeko herrietako laguntzarekin.

Aurreko urteotan bezala, 1988 eta 1996 urteen artean (biak barne) jaiotako 100 gazteek parte hartu ahal izango dute garapenerako ekintzetan Amerikako, Asiako eta Afrikako herrialdetan. Esperientziaren iraupena hiru hilabetekoa izango da, ahal dela, uztailetik urrira arte.

Egutegia eta izen-emateak

Martxoaren 5ean, alde aurretik hautatutako pertsonen zerrenda plazaratuko da; martxoaren 9, 10 eta 11n, Arabako Barrian egingo da alde aurretik hautatutako pertsonen topaketa; hilaren 14an hautatutako lagunen eta erreserban geratzen diren zerrendak emango dira ezagutzera; eta hilaren 24an eta 25ean, Barrian ere, informazio eta orientazio fasea egingo da, hautatutako pertsonentzat. Hilaren 27an eta 28an ebaluazio-topaketa izango da. Eskabideak bide presentziala erabili edo online egin daitezke (eskabidearen formulario elektronikoa www.gazteaukera.euskadi.eus gazte atarian dago). Helbide berean, bete beharreko baldintzak, konpromisoak eta abarrei buruzko informazioa eskaintzen da.



Cascais, 2018ko Gaztediaren Hiriburu Europarra

Portugalgo seigarren hiri handiena 2018ko Gazteriaren Hiriburu Europarra izango da. Cascaisek 200.000 biztanletik gora dauzka, eta horietatik %40k 35 urte baino gutxiago dute; gainera, azken 10 urteetan gehien hazi den udalerria da.

Europako Gazteriaren Hiriburua titulua urtero ematen du Gazteriaren Foro Europarrak, urtero hiriburu desberdinari. Izendapenaren urte horretan, hiri anfitrioiaren hainbat ekitaldi eta proiektu egingo dira, gizartean gazteriak eta gazte erakundeek duten zeregin funtsezko eta aktiboa erakusteko. Programa ofizialaren zati bat izango dira hainbat gai: hiritartasun europarra, mugikortasuna, sormena, garapen pertsonala eta soziala. Eta gai horiek guztiek bihurtuko dute hiri portugaldarra gazteriaren epizentro europarrean.

Argibideak: <http://cascais2018.eu>

BEKA SARIAK

* **Research Fellow programa 20 gazte kontratatzeko**, IKERBASQUEk deituta. 3 eta 10 urte arteko eskarmentua eduki beharko dute ikertze lanetan gazteek eta ekimenak Eusko Jaurlaritzak Euskaditik kanpo lanean ari diren gazte ikertzaileak itzultzea ahalbideratu nahi du. Bost urtetarako ikertze kontratuak izango dira, Zientzia Legearen arabera, ebaluazio eta behin betiko lanpostua lortzeko aukerarekin. Ezagutza esparru guztietarako izango dira kontratuak, hau da, Zientzia Esperientzalean (Biologia, Kimika, Fisika) zein Bizitzaren Zientzietan, Medizinan, Matematikan eta Ingeniaritzan, Gizarte Zientzietan eta Humanitateetan. Deialdia: martxoaren 15era arte. Eskararak: www.ikerbasque.net

* **Gloria Fuertes 2018ko Gazte Poesia Saria** 16 eta 25 urte bitarteko gazteentzat, beste lehiaketa batzuetan saritu ez diren gazteleharzko liburutarako. Gai eta forma librerekin, ez da umeentzako poesia sari bat eta lanek 500 eta 700 bertso arteko luzapena eduki beharko dute. Saria 1.000€koa izango da eta liburuaren argitalpena. Eskararak: martxoaren 31ra arte. Informazioa: <http://www.gloriafuertes.org/index.php/premio-gloria-fuertes-poesia-juven>

Gaztelekuaren programazioa

Otsaila

Hilak 2, ostirala, 15, osteguna, eta 27, asteartea: OSASUN SEXUALAREN HILABETEA

Hilak 7, asteazkena: ESKULANA: PINTZA BIZIDUNAK

Hilak 9, ostirala: MASTERCHEF: TORTITAK

Hilak 11, igandea: ESKULANA: GAZTELEKUA ERREFORMATUZ

Hilak 13, asteartea: TOPAKETA: ASANBLADA

Hilak 16, ostirala, eta 17, larunbata: TAILERRA: MAKILLAJE ETA KARAKTERIZAZIOA

Hilak 21, asteazkena: MASTERCHEF: MAZEDONIA

Hilak 23, ostirala: TAILERRA: MAITASUN ERROMANTIKOA DESMITIFIKATUZ

Hilak 24, larunbata: IRTEERA: ESCAPE ROOM

Hilak 25, igandea: ZINEKLUBA



Osasunari, artisau-garagardoari eta laburmetrai bati lotutako ekimenak dira "Hola", "Una noche en el cementerio" eta "Osasun Fundamental" proiektuek irabazi dute Wanted Ideia Lehiaketaren 2017ko edizioa

Gazteria Zerbitzuak eta Ekonomia-Sustapen sailak batera sustatutako Wanted Ideia Lehiaketaren 9. edizioaren irabazleak, *Hola*, *Azkona*, *Una noche en el cementerio* eta *Osasun Fundamental* izeneko proiektuak izan dira.

Ez aldatu janaria; aldatu platera leloarekin, *Hola* izeneko proiektu irabazleak 9.997,57€ jasoko ditu. Horrek punta-puntako sukaldaritza teknologia aurkeztu du, hau da, 500etik gora zulo txiki dituen plater bat, elikagaien koipeak bereizi eta xurgatzeko ahalmena duena, gure gorputzak egin behar ez dezan. Ander Méndez eta Aitor Bilbao sortzaileek azaldu dutenez, diseinu-plater honek daukan mekanismoari esker, olio xurgatzen du, eta otordu bateko kalorien %30eraino bereganatu ahal ditu. Javier Zubeldiak, Markel Herreok eta Josu Zubizarretak aurkeztutako *Azkona* delako proiektuak artisau-garagardoa egiteko

enpresa bat abiatu nahi du, ikuspegi kooperatibista, lokalista eta ekologistarekin. Enpresa honek Getxori bere garagardo-kultura aberasten duten hainbat produktu eskaini nahi dizkio, eta artisau-garagardoaren munduak eskaintzen dizkigun zapore eta aroma berrietarako zaletasuna sustatu ere. Proiektua abian jarri ahal izateko sustatzaileek sariaren 4.672€ izango dituzte.

Gau bat hilerrian izenburuko animaziozko film laburra da, Stop Motionek eginga, gizartean plastikoko gehiegi erabiltzearen arazoa azaltzen duena eta planetak ezin duela ekoizten dugun guztia berreratu erakusten duena. Adrián Nogalesen proiektua da eta 6.550€ jasoko ditu.

Azkenik, Alejandro Sainz de la Ricaren *Osasun Fundamental* tailer dinamikoaren eskaintza bat da, dohainik, bi eta bost ordu artekoak, Getxoko ikastetxeetan gaz-

teenen osasun mental eta emozionala landu, garatu eta indartzeko. Ikasleen garapen maileri eta ikastetxeen hizkuntza eredu egokitutako tailerrak dira, estigmatiarekin amaitzeko, bizi-ohitura osasuntsuak sustatzeko eta ondoeza prebenitzeko. Gure lehen urteak eta nerabearoa funtsezko etapak dira oinarri osasuntsu bat finkatzeko, bizitzan aurrerago disfuncionaltasunak agertzea prebenitzeko eta bizitza beteago bat edukitzeko. Horregatik, psikologo gazte batek bultzatutako proiektu txiki honek lehenengo pausua izan nahi du gure gorputza mentalki eta emozionalki zaintzean gizartean kontzientzia sortzeko helburuarekin. Proiektu honek 779€ko saria jaso du.

Dirutan jasotako saritik aparte, proiektu bakoitzak 10 orduko aholkularitza profesionala jasoko du, bakoitzak aukeratutako eremuan.

Nobedade gisa "Maitasun erromantikoa", "Nomina, hitzarmen, oinarritzko soldata ... ez dut ulertzen!", "Antzerkia" eta "Construct 2.0 bidejokoa sortu" eskaintzen dituzte

Tailer eskaintza berria gazteentzat

Ostiralean, otsailak 2, Udalaren Gazteria Zerbitzuak antolatutako tailerretan parte hartzeko izena emateko epea zabalduko da, aurten otsaila eta ekaina bitartean egingo direnak. Aurreko urteetan eskaintzen zirenei, besteak beste *Makillaje eta karakterizazioa* (1 eta 2) eta *Elikagaien manipulazioa*, aurten tailer berriak gehitu behar zaizkie: *Maitasun erromantikoa*, *Nomina*, *hitzarmen*, *oinarritzko soldata ... ez dut ulertzen!*, *Antzerkia* eta *Construct 2.0 bidejokoa sortu*.

Ekimena udalerriko 11 eta 30 urte bitarteko neska-mutuei zuzenduta dago eta aniztasun funtzionala duten gazteei zabalik daude. Izena emateko: telefonoz (94 466 03 53), posta elektronikoz gazte-

OTSAILA > EKAINA
GAZTEENTZAKO TAILERRAK









- MAKILLAJE ETA KARAKTERIZAZIOA
- MAITASUN ERROMANTIKOA
- NOMINA, HITZARMEN, OINARRITZKO SOLDATA...EZ DUT ULERTZEN!
- ANTZERKIA
- ELIKAGAIEN MANIPULAZIOA
- CONSTRUCT 2.0 BIDEJOKOA SORTU

bulegoa@getxo.eus (ipini behar da izena, tailerra edo kursoaren izena eta kontaktatzeko telefono zenbakia -eskukoa hobe-), web-

gunean www.getxo.eus/gazteria eta Gazte Bulegoan bertan (Tangora Etxea, Algortako Etorbidea, 98).